



AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2019ko apirilaren 30a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:20

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Lourdes Salsamendi Goñi, Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Aizpea Ubegun Manterola, Jose Angel Iparraguirre Alberdi, Iñigo Arruti Agirre eta Ana Priede Merchan.

Idazkaria

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, 2019ko martxoaren 26ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 2.- 2019ko martxoaren 29ko 159 zenbakidun Alkate Dekretuaren berri ematea. Dekretu horren bidez, Udalaren 2018ko aurrekontu propioaren likidazioa onartzen da.



- 3.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udal Musika Eskolan egindako ikasketen tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala aldatzea, 2019-2020 ikasturteari dagokionez.
- 4.- Onartzea, egoki bada, baldintza-orri administratibo partikularrak, honako bi finka urbanoak besterentzeko: Orioko 3. Hirigintza-jarduerako eremuko (AIU3) —Hondartza— UE3.2 exekuzio-unitateko birpartzelazio-proiektuaren emaitzaren finken zerrendako 2B2 eta 2B3 erreferentziadun finka urbanoak.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Orioko Udalaren arteko hitzarmena, mendekotasuneko laguntza ekonomikoak jasotzen dituzten herritarren zaintzaren kalitatearen jarraipena egiteko aldiro-aldiro.
- 6.- Onartzea, egoki bada, 2019rako plantilla organikoaren eta lanpostu-zerrendaren aldaketa.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Orioko herriko jaiegunaren proposamena 2020rako.
- 8.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, 2019KO MARTXOAREN 26KO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Udalbatzarrak 2019ko martxoaren 26an egindako ohiko bilkurako akta.

2.- 2019KO MARTXOAREN 29KO 159 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUAREN BERRI EMATEA. DEKRETU HORREN BIDEZ, UDALAREN 2018KO AURREKONTU PROPIOAREN LIKIDAZIOA ONARTZEN DA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Dekretuak honela dio, hitzez hitz:

Udal honen 2018ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak,



Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2018ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZA GERAKIN:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2018-12-31n:		7.667.977,85
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2018-12-31n:		1.007.643,26
Aurrekontuko zordunak :	985.591,34	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	22.051,92	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2018-12-31n:		1.072.159,90
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	400.787,03	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	671.372,87	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):		7.603.461,21
5.- Saldo kobragaitzak:		428.591,50
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		64.321,19
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		7.110.548,52

AURREKONTUKO EMAITZA:

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	440.565,27
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-3.851,22
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	839.433,31
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	+82.803,49
	-5.696,41
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	1.353.254,44

KREDITU GERAKINAK:

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	1.777.812,13
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	461.469,51
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	2.239.281,64



Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL MUSIKA ESKOLAN EGINDAKO IKASKETEN TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA, 2019-2020 IKASTURTEARI DAGOKIONEZ.

Udalbatzarrak gai hauen berri jakiten du: Musika Eskolaren 2019-20 ikasturterako proposatutako tarifak eta tasa akademikoak murrizteko arautegia.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea Batzorde Informatzaileak 2019ko apirilaren 23an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA 2019-2020 ikasturterako Danbolin Musika Eskolako tarifei eta matrikula tasak murrizteko arautegiari, segidan azaltzen diren terminoetan:

4.3. Orioko Udal Musika eskolan egindako ikasketak

2019-20 ikasturtean aplikatuko diren tarifak honako hauek izango dira:

Tarifa bakarrak:	Euroak
a) Musika mintzaira, ikasleko (2. maila).....	244
b) Instrumentu ikasgaia, ikasleko (2. eta 3. mailan).....	356
c) Musika tailerra, ikasleko (1. mailan).....	120
d) Ikasketa osagarriak (3. mailan).....	244
e) Bigarren instrumentua, ikasleko (2. eta 3. mailan).....	641
f) Euskal dantza, ikasleko.....	244
g) Euskal dantza, ikasleko (beste instrumentu batean ere matrikulatua egonez gero).....	244
h) Musika instrumentuen alokairua (etxera eramanda).....	114



- i) Musika instrumentuen alokairua (musika eskolan).....65
- j) Instrumentu taldea, ikasleko.....70
- k) Instrumentu taldea, ikasleko
(beste asignatura batean ere matrikulatuta egonez gero).....Doan

HOBARIAK 2019-20 IKASTURTEKO TASETAN. BALDINTZAK.

Goian adierazitako tarifaren zergadunek hobariak izango dituzte, beren egoera ekonomiko-familiarraren arabera, Lanbide arteko Soldata Minimoarekin (LSM) zuzenean lotuta eta bi zirkunstantzia hauekin ponderatuta:

- Familiaren etxebizitzan bizi diren eta erroldatuta dauden pertsonen kopurua.
- Familia-unitatea osatzen duten kide guztien diru-sarreraren kopurua, Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin alderatuta.

Hori guztia, honako taula honen arabera:

	Urteko soldata, Lanbide arteko Soldata Minimoarekiko erlazioan						
Familia-unitatearen kide kopurua	LSM edo <	LSM + %10	LSM + %20	LSM + %30	LSM + %40	LSM + %50	LSM + %60
1-2	%90	%75	%50	%25	-	-	-
3	%90	%90	%75	%50	%25	-	-
4	%95	%90	%90	%75	%50	%25	-
5	%95	%90	%90	%90	%75	%50	%25
6	%95	%90	%90	%90	%90	%75	%50
7	%95	%90	%90	%90	%90	%90	%75

Hobariak eskatzeko alde zuzeneko baldintzak hauek dira:

- 1.- Orion erroldatuta egotea 2019ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik.
- 2.- Udalarekiko zorrik ez izatea.

Aurkeztu beharreko agiriak:



- Nortasun-agiriaren kopia.
- Familia-liburuaren kopia.
- Errenta aitorpenaren kopia (kide aktibo guztiena)
- Errolda-agiria.
- Elkarbizitza-agiria.

2.- JENDAURREAN JARTZEA erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduen 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan iragarkiak argitaratuz, arau hauen arabera:

a) Ikusgai dauden tokia: Udaletxeko idazkaritzan.

b) Aztertze eta erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, bulego-orduetan.

c) Erreklamazioa aurkez dezaketenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauen 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik gabe.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA-ORRI ADMINISTRATIBO PARTIKULARRAK, HONAKO BI FINKA URBANOAK BESTERENTZEKO: ORIOKO 3. HIRIGINTZA-JARDUERAKO EREMUKO (AIU3) —HONDARTZA— UE3.2 EXEKUZIO-UNITATEKO BIRPARTZELAZIO-PROIEKTUAREN EMAITZAREN FINKEN ZERRENDAKO 2B2 ETA 2B3 ERREFERENTZIADUN FINKA URBANOAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza eta Ingurumena batzorde informatzaileak 2019ko apirilaren 15ean emandako diktamena ikusita, gaia



eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA baldintza-orri administratibo partikularrak, honako bi finka urbanoak besterentzeko: Orioko 3. Hirigintza-jarduerako eremuko (AIU3) -Hondartza- UE3.2 exekuzio-unitateko birpartzelazio-proiektuaren emaitzaren finken zerrendako 2B2 eta 2B3 erreferentziadun finka urbanoak.

2.- ARGITARATZEA dagokion lizitazio-iragarkia Orioko Udaleko webgunearen (orio.eus) Kontratatzaillearen profilean, behin Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasuna eta Finantzeta Departamentuaren nahitaezko baimena lortu ondoren, beharrezkoa baita, lizitazio-tipoak (2.219.450 euro) gaintu egiten duelako Udalaren 2019ko Aurrekontu Propioa ohiko baliabideen %25eko langa (1.889.225 euro).

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ORIOKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, MENDEKOTASUNEN LAGUNTZA EKONOMIKOAK JASOTZEN DITUZTEN HERRITARREN ZAINTAREN KALITATEAREN JARRAIPENA EGITEKO ALDIRO-ALDIRO.

Udalbatzarra gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Gizarte Ongizate batzorde informatzaileak 2019ko apirilaren 11n emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Orioko Udalaren arteko hitzarmena, mendekotasuneko laguntza ekonomikoak jasotzen dituzten herritarren zaintzaren kalitatearen jarraipena egiteko aldiro-aldiro.

2.- AHALMENA EMATEA alkateari hitzarmen hori sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.

Emandako botoa azaltzeko, Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EH BILDUren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak aldeko botoa eman diola hitzarmena sinatzeari, baina modu kritikoan. Adierazten du, batetik, gehiegizkoa iruditzen zaiela mendekotasuneko laguntza ekonomikoak jasotzen dituzten herritarren zaintzaren kalitatearen jarraipena bi urtero egiteko ezartzen duen epea; eta, bestetik, kritikagarria iruditzen zaiela Aldundiaren aurrekontuak lan horietarako izan duen murrizketa: 2018an aurrekontua 5.000.000 eurokoa zen eta 2019an, berriz, 630.000 eurokoa. Emeteriok dio, beren ustez, Gipuzkoako Foru Aldundiak zerbitzu egokiagoa eman beharko liekeela herritarrei.



6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2019RAKO PLANTILLA ORGANIKOAREN ETA LANPOSTU-ZERRENDAREN ALDAKETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Lanpostu-zerrendan izandako aldaketa honako hau da: karrerako funtzionario lanpostu bat sortu da Orioko Udaleko plantilla organikoan, ezaugarri hauek dituen: Peoi espezialista balioaniztuna; Administrazio bereziko eskalakoa; zerbitzu berezien azpieskalakoa; ofiziotako pertsonaleko klasekoa; E edo AP sailkapen-taldeko titulazio-mailakoa; udal-taulan 8. ordainsari-maila daukana; eta 1 hizkuntza-eskakizun nahitaezkoa duena.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea Batzorde Informatzaileak 2019ko apirilaren 23an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA 2019rako plantilla organikoaren eta lanpostu-zerrendaren aldaketa, goian azaldutako terminoetan.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HERRIKO JAIEGUNAREN PROPOSAMENA 2020RAKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2019ko apirilaren 23an egindako bilkuran diktaminatu du Orioko herriko jaieguna 2020. urterako honako hau izatea: ekainaren 29a, San Pedro eguna.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea Batzorde Informatzaileak 2019ko apirilaren 23an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

PROPOSATZEA Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari Orioko jaieguna 2020. urtean honako hau izatea: ekainaren 29a, San Pedro eguna; jaiegun hori baliogabea izango da lanerako, ordaindua eta errekuiperatu beharrik gabekoa.

Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren martxoaren 26ko 52/2019 Dekretuaren 2.2 artikuluan ezarritakoa betetz. Dekretu horrek Euskadiko Autonomia Erkidegoko jaiegunen Egutegi Ofiziala onartzen du 2020. urterako.



8.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak hartzen du hitza, ORAIN talde politikoaren izenean, eta galdetzen du ea zenbateko epea duen Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzeta Departamentuak 4. gaian aipatu den nahitaezko baimena emateko. Idazkariak erantzuten du, esanez Foru Aldundiaren erantzuteko epea hilabete eta erdi eta bi hilabeteren artekoa dela eta Udal Idazkaritzak dagoeneko eskatua diola Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzeta Departamentuari erantzuna urgentziaz eta ahalik eta azkarren emateko.

Aizpea Ubegun zinegotziak hartzen du hitza, EH BILDUren izenean, eta bukatzeaz dagoen udal-agintaldi honen balorazioa egiten du. Adierazten du, lehenbizi, EAJ talde politikoa ez dela historiara pasatuko agintaldi honetan «gobernatu» duenagatik; bai, ordea, pasatuko dela historiara EH BILDU, ORAIN eta PSE-EE-PSOE talde politikoek egindako oposizio-lan bateratua.

Aizpea Ubegun zinegotziak galdetzen du, bestalde, ea non dagoen EAJ talde politikoak bere garaian egin zuen proposamenen dekalogoia eta, horrekin batera, eransten du goraipatzekoa dela bere talde politikoak erakutsi duen lanerako ahalmena; esaten du, baita ere, eskerrak eman nahi dizkiela, zintzo, ORAIN eta PSE-EE-PSOE talde politikoei, EAJren udal-gobernuaren aurrean egin duten oposizio-lan bateratu eta koordinatuagatik.

Bestalde, Aizpea Ubegun zinegotziak adierazten du EAJ talde politikoa noraezean ibili dela, koordinazio eta lidergorik gabe; eta azpimarratzekoa dela, batetik, agintaldiaren azken zatian ez direla bildu Merkataritza eta Hezkuntza batzordeak eta, bestetik, Orioko Hirigintza Antolamenduaren Plan Orokorren idazketaren tramitazioa geldituta dagoela gaur egun.

Bukatzeko, Aizpea Ubegun zinegotziak adierazten du EH BILDU, ORAIN eta PSE-EE-PSOE talde politikoek oposizio-lan bateratu, ordenatu eta eraikitzaileak frogatu duela posible dela oposiziotik inizatibak aurrera ateratzea gai askotan.

Ana Priede zinegotziak hartzen du hitza, PSE-EE-PSOE talde politikoaren izenean, eta eskerrak ematen dizkio udalbatzarrerak lau urteotan etorri den jendeari, nahiz eta faltan bilatzen dituen orain arte fidelak izan diren pertsona batzuk.

Ondoren, Ana Priede zinegotziak agintaldiaren balantzea egiten du eta, hasteko, adierazten du pozik dagoela berak egin duen lanarekin, posible izan zaiolako aurrera ateratzea bere proposamen gehienak: irisgarritasunaren alorrekoak, saneamenduaren alorrekoak...

Segidan udal-zerbitzuen balorazio bat egiten du eta nabarmentzen du udal-liburutegia egokitzeko sortutako 50.000 euroko partida. Horri buruz, esaten du orain falta den gauza bakarra dela liburutegiaren ordutegia zabaltzea. Nabarmentzekoak iruditzen



zaizkio, baita ere, hirugarren adinekoen ile-apaindegia berritzeko egindako inbertsioak, Eguneko Zentroko berdeguneak zabaltzeko lanak eta etxebizitza sozialak —bereziki, alokairukoak— bultzatzeko egindako ahalegina, Eusko Jaurlaritzak Munto inguruan sustatuko dituen alokairuzko 55 etxebizitzetan gauzatuko dena.

Udal-gobernuaren kudeaketari dagokionez, Ana Priede zinegotziak adierazten du EAJren udal-gobernuari antolamendua eta batzordeburuen arteko koordinazioa falta izan zaiola.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak hartzen du hitza, ORAIN talde politikoaren izenean, eta zorionak ematen dizkie EAJ, EH BILDU eta PSE-EE-PSOE talde politikoei, apirilaren 28ko hauteskundeetan izan dituzten emaitzengatik.

Jose Angel Iparragirrek, bestalde, adierazten du oraindik jarrita dagoela publizitate-kartela autopistaren irteeraren ondoko errotondan eta salatu egiten du ez erretiratu izana.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du ez datorrela bat EH BILDU eta PSE-EE-PSOE talde politikoek agintaldiari buruz egin duten balorazio negatiboarekin eta azpimarratu egin nahi duela batzordeburu guztiek egin duten lana. Esaten du, baita ere, kirol-mahaiak eta Topagune Berdeak lanean segitu dutela. Bukatzeko, adierazten du espero duela EAJk emaitza ona izatea datozen udal-hauteskundeetan, eta aukera izatea udal-gobernua lidertzen segitzeko; eta, beraz, espero duela gaur egungo oposizioak gero ere oposizioan segitzea.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,